BIZITEGI ERAIKINA — SAN MARTZIAL 32-34

D MAILA



Egileak eta data: Jose de Goicoa - 1884. Augusto Aguirre – 1915

Deskribapena

* Getaria 32. 1915ean eraiki zen (aurrez zegoen 1871ko eraikina eraitsi ostean) eta 34rekin lotu zen, azken horretan aldi berean eraberritze handia egin zen. Jatorriz behe oina eta lau goi oin, gehi mantsarda bikoitzeko bi jasodura, txapituladunak. Harlanduzko fatxada, zurezko begiratokia duena hasiera bateko bi zenbakien (32ren eta 34ren) atari komunaren ardatzean.
* Getaria 34. Kantoiko eraikina, jatorriz behe oina eta hiru goi oin dituena (1884koa), gehi 1915eko jasodura bat –fatxada planoan– eta beste bi jasodura txapituladun mantsarda bikoitzean. 1915ean aurrez zegoen eraikina eraberritu zen eta 32rekin lotu zen –hartan kokatzen da ataria eta oinetara igotzeko eskailera–. Harlanduzko fatxada, kantoiko alakan zurezko begiratokia duena. Berriki zaharberritze lanen mende egon dira eraikinak.
* Bi eraikinetako behe oinak hareharriz xaflatuta daude gaur egun, helburu mimetikoarekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura mantsardatuak (5. eta 6. goi oinak).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
* Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.